

1. Azkue jaunak bere *Morfologia* amaitu ta orain bere lan ederaren argibidea dakarkigu. Argibide orek lenbizi euskal idazleen leño agiria dakar euskal-idazle beri batzuek emanik. Gero gaien leñoa dator. Batzaraldiaren asti gejena irakurpen onek eraman digu.

2. Bilbo'ko Udal-aren euskal-irakasleen azterkari ta epaile izateko, garaia danean, Euskaltzaindiak Altube, Eguskitza ta Azkue izendatu ditu.

3. Etxegarai jaunari esan bear zaio bere euskaltzain-saferako itzaldiaren agiritxo bat Eguskitza jaunari biali dezaiola.

Ta beste gairik izan ezda otoitzez bukatu da batzaraldia.

Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian, 1925 'ko Yoñaila 'ren 27 'an.

Batzaraldira euskaltzain abek datoz : Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Intzagarai, Intza ta Lakonbe. Araudi-otoitze egin da.

1. Urkijo jaunak esaten digu : Juan Karlos Geña jauna autatu bear litzakela Euskaltzaindiko urgazle izateko, edozeñek daki-ta, jaun onek euskeraren alde lan asko egiten duela, batez ere oraingo txandan, antziñako euskal-neurtitzak argitaraturik.

Euskaltzaindiak pozik aukerutzen du Juan Karlos Geña jauna bere urgazletzat ta auxe ori iragari bear zaio.

Beste jaun agurgari bat aipatzen du Urkijo jaunak: Trombetti jauna. Onek ere bere idazti eder batean euskera goratzen du ta noski euskaltzaindiak zerbaitez saritu bear luke.

Zer aipamen eman bear litzaioken, ez da batzaraldi ontan erabaki, baña datoñen ilekoan erabaki bear litzake.

2. Altube jaunak jaraitu du bere lana, euskal-*acento* gaibidetzat arturik. Lengo batzaretan irakur-itako txostenaren osabidea da. Gogoz entzun dio euskaltzaindiak.

3. Euskaltzaindiak erabaki du: Agiré gure lan-kide maite zanaren idazki batzuek argitaratzea: olerki ta ipuitxoak izango dira liburu berri onen mami. Intzagarai'k aukeratu lezazkike.

4. Aita Intza'k irakuri digu Napañoa'ko Aldundiak berari bialtzen dion eskutitz bat. 650 peseta gelditu dira Napañoa'ko euskal-jaialdiak egin-da gero; ta Aldundiak dio Euskaltzaindiak gorde ditzazkela, gero-roko jai batzuetarako asibide izan ditezen.

Aldundiari diru ori eskatu bear zaio ta aurrezki-kutxan jafi.

5. Lekarotz'en euskal-azterketak izango dira. Euskaltzain jaun bat antxen agertzea, bertako Zuzendariak nai luke.

Azkué jauna joango da.

Ta beste gai batzuek urango batzaraldirako lagarta amaitu da auxe.